

### Onuraduna

- **Enpresari indibiduala eta Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kidea** (betiere diru-laguntza norbere izenean eskatzen bada).
  - Enpresa-jardueraren egoitza soziala eta fiskala EAEn egotea, eta lantokia ere EAEn kokatzea.(\*)
  - **EJZn alta emateko egunaren bezperan lanik gabe eta dagokion zerbitzu publikoan enplegu-eskatzailerik gisa izena emanda egotea.**
  - EJZ eta Gizarte Segurantzaren alta eman izana **2024ko urtarrilaren 1etik eta diru-laguntza eskatu den egunera arteko epean.**
  - **Jarduera bera gauzatu ez izana**, norberaren kontrako langile gisa EJZn alta eman **aurreko 6 hilabeteetan.**
  - Lanbideren **aurreko deialdietan** IV. eta V. kapituluaren **onuradun ez izatea.**
  - **Eskaera-egunean 18 urte** beteta edukitzea.
  - **Autoenplegurako** beste **dirulaguntzarik jaso ez izana.**
- (\*) **Gutxienez bi urtez mantendu** beharko dira, diruz lagundutako inbertsioaren eskuratzeko-datatik aurrera (diruz lagundutako lehen fakturaren data).

### Zenbatekoa

- Onuradun bakoitzak, **gehienez ere, 3.500 euro** jasoko du.
- Zenbateko hori **%15ean** areagotuko da eskaera aurkezteko unean **19-29 urte** baditu eta beste **%15ean emakumea** bada.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren kideen multzorako 10.000 euro izango dira, gehienez.

### Diruz lagunduko diren gastuak

- **Aktibo finkoetan egindako inbertsioak** lagunduko dira diruz: Eraikuntzak (arkitektoaren azterlan teknikoa barnean, lokalak erostea izan ezik), makinak, instalazioak, tresnak, altzariak, informazioa prozesatzeko ekipoa, garraio-elementuak (jarduerari zuzenean eta eskusiboki lotuak), frankizia-kontratuak, aplikazio informatikoak (webguneak egiteko gastuak ere hemen sartzen dira, hainbat ekitalditan erabiltzeko asmoarekin egiten badira), merkataritza-funtza, eskualdatze-eskubideak.
- Inbertsioak, **5.000 euro edo gehiagokoa** izan behar du, eta onuradunek inbertsioak gauzatu beharko dituzte, **2024ko urtarrilaren 1etik eta dirulaguntza eskatu den egunera arteko epean.**
- Diruz lagundutako inbertsioek **enpresa-jarduerari lotuta** jarraitu beharko dute **gutxienez bi urtez**, eskuratu zirenetik aurrera (diruz lagundutako lehen fakturaren data).

### Dokumentazioa

- Eskaera dokumentua.
- EJZn alta ziurtagiria.
- Autonomoen Gizarte Segurantzako araubide berezian alta ziurtagiria.
- Ondasun Erkidegoaren edo Sozietate Zibilaren eraketa dokumentua, hala badagokio.
- Inbertsioen plana, diruz lagundu daitezkeen aktibo finkoen arabera.
- Inbertsioen faktura eta ordainketa agiriak.

### Eskaera egiteko epea

- **2024ko maiatzaren 7tik 2024ko urriaren 31 arte.**

**Laguntza-eskaerak ebartzeko dira aurkeztutako ordenaren arabera, aurrekontu-zuzkidura agortu arte**